

Arrantza-merkatuan Gasteizko merkatariak izandako partaidetza eta inbertsioak (XVII. mendearen hasieran)

Alberto Angulo Morales
EHUko irakaslea

XVII. mendearen hasieran zehar Gaztelan arrain negozioaren arrakastak leku eta negozio ezberdinetan sartutako merkatari kopuru handi baten partaidetza ekarri zuen. Horregatik, balea eta arrain mota askoren ehiza kanpainak finantzatzeko merkataritzea-konpainien sortze prozesua handituz joan zen. Konpainia hauen sortze eta indartze prozesuan Baiona, Bilbo edo Gasteizko merkatari askok parte hartu zuen. Azken horiek, Gasteiztarrek, ontzija-beekin eta Madrilgo arrain inportatzaile (gehienak atzerritarrak) handiekin zituzten harreman estu eta bereziei esker, negozio hauetan aparteko garrantzia eskuratu zuten. Azkenengoz, arrain merkatuaren monopolizatzeko ahalegin horrek Gasteizko merkatari batzuen kasuetan ez zuen arrakastarik izan.

The major importance of the fishing trade in Castile at the beginning of the XVII century caused a participation of tradesmen in different market places and kinds of business. As a cause of this, merchant companies destined to finance the whale-hunting campaigns and, generally, fishing of various species, were created. In these companies, tradesmen of different places such as Bayonne, Bilbao or Vitoria, participated actively. The businessmen of Vitoria gained a great prestige in this trade, mainly to their good relations with the great fish importers from Madrid (all of those were foreigners) and the owners of the fishing-fleets. This monopolizing of the fishing-market ended tragically for some of the businessmen of Vitoria.

Badakigu monasterioetan gordetako dokumentu zaharretan jasota daudela Erdi Arotik, arrainlekuei buruzko eskubideak eta kostalde hauetan hondartu eta atzitutako baleei buruzko informazioak. Gainera, XII eta XIV. mendeen arteko garaian, Gaztelako Koroaren erregeek (besteak beste, Alfontso VIII.ak eta Fernando III.a "Santuak") itsas merkataritza menpe eduki ahal izateko asmoz, politika erabakigarria bultzatzen jarraitu zuten. Helburu honen bila, Gaztelako erregeek kostaldeko zenbait herriri foru berriak eman zizkieten, besteak beste: Kastrori (1163), Sanandereri (1187), Laredori (1200), Hondarribiari (1203), Getariari (1209), Mutrikuri (1209), San Vicenteri (1210), Bermeori (1236) edo Zarautzi (1237). Aldi berean, politika hedakor honen ezaugarri nabarienteko batzuk ziren "Estatuto de Naufragios" edo hondoratzeen estatutua (1180) eta gaziketa bidezko arrainlekuen sustapena (1203). Errege-foruek zekartzaten abantailek, portu hauetako biztanleei eskaintako zigorgabetasunak eta askatasunek, arrantza-jardueraren hazkundea nabarmen bultzatu zuten. Halere, estatutu juridiko horiek aldaketa sakon eta iraunkorrek ekarri zituzten, bereziki, berkontsumorako izan ohi ziren arrainlekuak artatzeko eta soberakinak merkatura-tzeko tresna aiposak bihurtu zituzten.

XIII. mendeak aurrera egin ahala, Kantauri itsasoko portuetako itsasgizonak Europako mendebalde guztian zehar ibiltzen hasi ziren, Iparraldeko Itsasotik Mediterraneoraino Euskal Herriko ekoizkinak (burdina, erretxina, larrua, etabar) esportatuz eta besteak beste (artilea, ardoa, oihalak) garraiatuz. Baionako Ontzi Elkartearen estatutuek (1213) XIII. mendearen hasierako nazioarteko merkataritzaren zirkulazioaren esparrua zehazten dute eta Europako portu famatuenetan, poliki-poliki, merkataria eta itsasgizon euskaldunen agerpena gero eta nabariagoa bihurtu zen. Adibidez, 1281 urtean Larroxelean eta Brujasen euskaldunen kabanak aurki ditzakegu, baina, egia esan, prozesu motel honen unerik eta lorpenik adierazgarriena Brujasko Euskal Herriko Etxea edo Kontsulatuaren agerpena izan zen XVI. mendean. Geroago, Burgosko Kontsulatuari aurre egiteko eta beraren merkataritzaren eraginetik zein babesetik askatzeko asmoz, Bizkaiko Jaugoak 1495eko otsailaren 14ko pragmatikaren bidez, Bilboko Kontsulatuaren sorkuntzari hasiera eman zion eta, 1551. urtean, errege-baimena lortu zuen. Zalantzarik gabe, Bilboko Kontsulatua Antzinako Erregimen osoan zehar Kantauriko itsasoko merkataritza-gunerik inportanteena izan zen hein handi batean. Kostaldeko hiriei dagokienez, Donostiak 1682ko irailean, Carlos II.aren agindu zuzen bati esker, helburu bera lortu zuen bere kontsulatua eskuratu zuenean. Azkenengoz, XVIII. mendean zehar Baionako Merkataritza Ganbera sortu zen (1726an), Gasteizko Kontsulatuaren egitasmoaren porrota (1780) eta Iruñeko merkatarien kontsulatu berri bat sortzeko saioak (1780) aurki ditzakegu (Angulo, 1995a; Azcona, 1996; Zabala, 1994).

Antzinatik Euskal Herriko itsasbazterreko biztanleriak kostaldeetan hondarreratzen ziren baleak beren probetxurako hartzen zituela jakin badakigu ere, animalia hauen arrantzari buruzko dokumentuetan agertzen diren lehenengo aztarnak aurkitu ahal izateko Erdi Aroa arte itxaron behar dugu. Ildo honetatik jarraituz, bale-arrantzari buruzko lehenengo informazioak 1059ko Baionako pribilegioan, Donostiako foruan (1181 ingurukoan), 1190ko Santoñako Kartularioan, Diego López de Harok Plentziari (1299) eta María López de Harok Portugaleteri (1322) emandako sorrera-kartetan agertzen zaizkigu (Casado Soto eta beste, 1995: 54-57).

Goiz Erdi Aroan zehar, balearen arrantzarako espedizioak eratu ziren euskal portuetan, baina, aldi berean, hauek ez dira nahastu behar Ternuako arrain-baltsak aprobetxatzeko eginiko espedizioekin. Beste alde batetik, bakailaoaren salmentari buruzko aipamenik zaharrena 1517. urtekoa dugu, produktu honetaz albisteak zaharragoak izan arren, eta, ekintza ekonomiko honen hasierak zerikusirik badu Ipar Amerikako bakailao-baltsa oparoen aurkikuntzarekin. Bakailao lehorrak, gazituak edo keztatuak harrapatu ahal izateko ontzi sendoak prestatzea nahitaezko bihurtu zen. Egia esan, garai hartako dokumentazioari kasurik eginez gero, bai balea bai bakailaoa Antzinako Erregimen osoan zehar ekoizkin nagusiak izan ziren. Hasiera-hasieratik, antza denez, baleen haragiaz beste ez zuten probetxurik ateratzen, baina, XVI. mendearen erditik aurrera, itsasgizonak zein merkatariak upeletan garrantutako baleen koipea haragia baino negozio hobea zela konturatu ziren eta, ondorioz, jarduera horri ekin zioten. Orduetik, Ternua eta Labradorrerantz urtero itsasoratutako ontziak, kopuru aldetik gehitzeaz gain lekune eta tamaina aldetik ere handiagoak izaten hasi ziren; izan ere, jarduera hartarako nao edo ontzi berezi bat asmatu zuten, 1575.ean Juan Escalante de Mendozak «naos de bordo y mareage firme para las pesquerías que dicen de alta mar» deskribatu zuelarik (Casado Soto eta beste, 1995: 60). Ikuspuntu ekonomikotik, balearen arrantza soberakinik emankorrenak uzten zituen zen, animalia honen haragia zein beste alde guztiak aprobetxagarriak ziren eta (besteak beste, jateko, tresnak egiteko eta olio ateratzeko). Horregatik, XV. mendetik arrantzaleak “Gran Sol” izeneko gunerantz eta Eskozia alderantz abiatuz alturako arrantzari ekin zioten.

1. Erregimen zaharreko arrantzaren kontrola: itsas ermandadetik merkatarien menpera

Hasiera-hasieratik, portuetako kofradiek arrain-salerosketak menderatu ez ezik arrantzaren teknika eta antolakuntza ere arautu zituzten. Ermandade horien giza konposizioa nahiko konplexua zela esan beharra dugu, adibidez, Donostiako “Santa Catalina”-ren kofradian arrantzaleak, itsasgizonak, ontzijabeak, maisuak, pilotuak eta merkatariak nahasturik agertzen zaizkigu (García Fernández, 1995: 360). Arrantzale eta ontzijabeen kofradien helburuak ugariak baziren ere, besteak beste, lau atal nagusi aipa ditzakegu: anaidien betekizun ekonomiko gehien arauketa; talde estu hauetan sartzeko eskatutako ezaugarrien finkapena; helburu erlijiosoa eta beste gorputz juridiko batzuen aurka bere interesak babestea (García Fernández, 1995: 363-375). Denboraren poderioz, itsas ermandade hauek arrain-salerosketari zegokiona kontrolpean jarri nahi izan zuten edo, beste era batera esanda, talde hauen bidez kostaldeko arrantza-merkatua monopolizatzen saiatu ziren. Alabaina, XV. mendetik aurrera kostaldeko udal-gobernuek kofradia hauek kontrolatu nahian ahalegin handiak egin behar izan zituzten. Aldi berean, ermandade hauek izandako beste arerio indartsu bat merkatariak izan ziren, arrantzaren merkatua menperatu nahi zutelako.

Batik bat, euskaldunek zituzten Ternuako arrainlekuen aurrerapena eta dekadentzia XVI. mendeko Espainiako Koroaren nagusitasunarekin erlazionaturik agertuko zaizkigu. Horrela, Erdi Arotik balearen arrantza ezaguna izan arren, XVI. mendea Espainiako Koroaren garapenarekin batera urrezko une bihurtu zen.

Gainera, Gaztelako Erregeek (Errege Katolikoek zein Felipe II.ak) beren armada galeoiez hornitzeko Euskal Herriko ontzigitza bultzatu zuten. Baldintza hauek kontuan hartuz, ez da harrizkoa 1540 eta 1590 artean arrantzale eta itsasontzi euskaldunen agerpena Ternuan nabaria izatea; beharbada, prozesu ekonomiko honen unerik disdiratsuen izan zela esan dezakegu. Baina, denboraren poderioz, egoera honen ezaugarriak aipagarrienetariko batek ere arrantzari kalte egin zion; nazioarteko politikaren arloan, Espainiako Koroaren nahiek eta premiek (berezi "Armada Garaitezina" hornitzeko erabilitako marinel eta itsasontzien eskaera) mugatu zituzten euskaldunek lorturiko urrezko garaia. Gainera, nazioarteko gatazkek eta gerlek ere kaltetu egin zituzten euskal arrantzale eta ontzijabeen nahiak; beraz, XVI. mendean zehar, arrainlekuen aldaketa sakona ikus dezakegu Ternuako hegoaldetik eta ekialdetik Groenlandia, Islandia, Norvegia edo Spitzberg irltako itsasbazterreraino. Ondorioz, Espainiako Koroaren nagusitasuna gutxituz eta euskal arrantzale, merkataria eta ontzijabeen aukerak ere murrizten ziren heinean, Frantzia itsasoan kontrola poliki-poliki lortuz joan zen.

1. taula
Espainiako arrain-inportatzaileak
(XVII. mendean lehenengo erdialdean zehar)¹

INPORTATZAILEAK	LEKUA	URTEA	JATORRIA	BITARTEKOA	ARRAINA
Gerónimo Fernández Alvarez	Madril	1610-1612	Portugal	Vega/Blandón	Bakailaoa
Antonio Blandón	Madril	1600-1634	Portugal	Paul/Tejera,	Arraina
Manuel Rodríguez Sarmiento	Madril	1601-1611	Portugal	Paul/Vega	Cecial
César Mariñón	Madril	1609-1620	Italia	Paul/Urbina	Bakailaoa
Daniel Saubola	Madril	1611-1630	Frantzia	Zavala	Arraina
Bartolomé Rodríguez	Madril	1616-1624	Portugal	Blandón/Vega	Arraina
Guillermo de Lobaina	Madril	1620-1639	Frantzia	Guerena/	Arraina
Pedro Viquemans	Madril	1614-1638	Frantzia	Aberásturi	Arraina
Miguel de Ulívarri	Madril	1634-1639	Espainia	Elguea	Arraina
Mateo Pérez	Cortiguera	1637	Espainia	Urbina	Arraina
Hernando del Mial	Cortiguera	1637	Espainia	Padura	Arraina
Domingo Lafuente	Cortiguera	1637	Espainia	Urbina	Arraina
Santiago Rodríguez	Cortiguera	1637	Espainia	Urbina	Arraina
Pedro de Marquina	Huidobro	1637	Espainia	Urbina	Arraina
Iñigo Orueta	Bilbo	1637	Espainia	———	Arraina
Diego Enríquez	Madril	1610-1611	Portugal	Blandón	Arraina
Martín de Lecuberri	Bilbo	1637	Espainia	———	Arraina
Jorge Díaz Cardoso	Madril	1611-1612	Portugal	Blandón	Arraina
Diego del Campo	Madril	1614-1637	Espainia	Guerena	Sardinzarra
Pierres de Sarrobers	Madril	1611-1612	Portugal	Blandón	Cecial
Francisco Fernández Mora	Madril	1613-1620	Portugal	Vega	Sardinzarra
Enrique Pietersen	Madril	1614-1624	Flamenko	Trocóniz	Bakailaoa
Gracián de Pintre	Burgos	1618-1623	———	Trocóniz	Bakailaoa
Justo de Sagnarte	Madril	1618-1638	Flamenko	Trocóniz	Arraina
Giles Bermolin	Donostia	1619	———	Trocóniz	Arraina
Alonso de Grijalba	Villalón	1619-1620	Espainia	Trocóniz	Arraina
Ingilberto Fanarte	Madril	1619-1620	Flamenko	Trocóniz	Arraina
Antonio Pancuque	Madril	1629	———	Trocóniz	Arraina
Antonio Rodríguez Pontevedra	Bordele	1600-1603	Portugal	Aramayona	Arraina

1. Iturriak: (A)rabako (A)giritegi (H)istoriko (P)robintziala. Protokolo ezberdinak.

Oharra: Bitartekoen zutabea ondo ulertzeko 2. Taulan aipaturiko izenak kontsultatzea komeni da.

Francisco Olivera	Donibane	1600-1603	Portugal	Aramayona	Arraina
Juan de Lamilla	Palentzia	1600	Espainia	Villanueva	Izokina
Lázaro de Carrión	Palentzia	1600	Espainia	Villanueva	Izokina
Pedro Rodríguez	Madril	1600	Portugal	Aramayona	Arraina
Enrique Ulsus	Madril	1600-1601	Flamenko	Aramayona	Arraina
Enrique López	Madril	1600-1601	Portugal	Aramayona	Arraina
Simón Fernández	Soria	1601	Portugal	Aramayona	Bakailaoa
Juan Rodríguez de Velasco	Medina del Campo	1601-1605	—	Aramayona	Cecial
Gerónimo Fernández Alvarez	Madril	1610-1612	Portugal	Vega	Arraina
Manuel Rodríguez Sarmiento	Madril	1601-1611	Portugal	Paul	Arraina
Diego Enríquez	Madril	1610-1611	Portugal	Blandón	Arraina

XVI. mendearen bukaeran, Espainiako Koroaren aurka Europako beste nazioen erasoaldiek eta gerlek espedizio hauen errentagarritasuna egoera larrian jarri zuten. Ondorengo mendean, Hogeita hamar Urteko Gudaldiak egoera zail hau berrindartu zuen eta, azkenean, Utrecht-eko Hitzarmenagatik, 1714.ean, arrainleku hauetan espainolek zituzten eskubideak kendu zizkieten eta ingelesek bereganatu zituzten. Hala eta guztiz ere, XV eta XVI. mendeetan arrantzaren arloko ezaugarriarik nabarmenena zera izan zen: Ternua, Norvegia eta Groenlandia aldean, balea eta bakailaoaren arrantza sendotu zirela. XV. mende arte balearen arrantza gure itsaldean egin ohi zen, baina, Bizkaiko golkoko balea-mota desagertu zen (“Balaena Bizcayensis”) eta arrantzale euskaldunak iparraldeko itsasoetara abiatu ziren “Balaena Mysticetus” delakoaren atzetik. XVII. mendean zehar baleen arrantzaren garapena negatiboa izan zen, batik bat, holandarrek eta ingelesek eginiko erasoengatik. Horrela XVII. mendearen bukaera eta XVIII. mendearen hasieraren artean, balea-arrantzaren arloan gainbehera nabarmendu zen.

XVIII. mendearen irudia makala izan arren, mende honetako hogeita hamarretako hamarkadan baleak harrapatzeko konpainia bat abiarazteko saioak egin zituzten, baina, egitasmo honen jarduera motza izan zen inguruko oztopoak, nazioartekoak, haiek pentsatzen zuten baino handiagoak eta eraginkorrakoak izan zirelako (esate baterako, Danimarkarekiko merkataritza debekaturik baitzegoen). Compañía de Caracasen laguntzak ez zuen arrakastarik izan eta XVIII. mendearen erdian konpainia hura desagertu zen (Casado Soto eta beste, 1995: 80-82; Agirreazkuenaga, 1985: 248). Ondorioz, kostaldeko hirietako kofradia gremialak zein konpainia berezi batzuk arrantzaren merkaturia menperatzen saiatu baziren ere, azken finean merkataria euskaldunak izan ziren helburu hau bereganatu zutenak.

Ildo honi jarraituz, goian kontsulta dezakezuen 1. Taulan, XVII. mendearen lehen zatiko Espainiako arrain-inportatzailerik ezagunenak bildu ditugu. Orokorrean, Euskal Herriko aduanetako kontu-liburu batzuetatik ateratako datu hauek, behin-behinekoak izan arren, talde honetako ezaugarri adierazgarri batzuk argi eta garbi erakusten dizkigute. Lehen alderdia, berrogei inportatzaile hauetatik gehienak (hogeita lau) madrildarrak zirela eta, haien artean, espainiarrak, portugaldarrak, flandriarrak edo frantsesak badaudela esan beharra dugu. Hots, jatorri askotakoak zirela begi bistakoa da, baina, egoera honen zioak zerikusi handia zuen espainiarren eta atzerritarren merkataritza-etxerik garrantzitsuenak Koroaren hiriburuan kokatuta egotearekin (etxe nagusiak zein ordezkariak ziren). Aldi berean, beste hiri eta herri batzuetan finkaturik zeuden merkataritza-etxe batzuk edo merkatariaiek ere aurki baditzakegu ere, behe-mailakoak izan ohi ziren, edo zamariak besterik

ez, agian. Gainera, kostaldeko hiri batzuetan jarritako inportatzaile batzuk ere agertzen zaizkigu, bai Donibane Lohitzunen (Francisco Olivera, beharbada portugaldarra), bai Bilbon (Iñigo de Orueta eta Martín de Lecuberri), bai Donostian (Giles Bermolin).

Horrela, salbuespen batzuk izan ezik, merkatarri edo inportatzaile hauen jatorriari dagokionez, gehienak portugaldarrak (16) eta espainiarrak (12) zirela ageri-agerian dago. Atzean, flandriarrak (4), frantziarrak (3) eta italiarrak (1) datoz baina atzerritar guztiak gehituz gero espainiarren kopurua baino altuagoa dela esan beharra dugu. Egia esan, portugaldarren presentzia ez da harritzeko modukoa XVI. mendetik bi Koroa hauek loturik zeudelako eta, ondorioz, merkatarri portugaldar hauen agerpena guztiz arrunta dela ulertu behar dugu. Gainera, judutar jatorrizkoak zirela ahaztu behar ez badugu ere, bagenekien Portugaletik etorritako merkatarri edo merkataritza-etxe hauek Gaztelako lurralde gehienetan finkatuta zeudela eta inportazio- zein esportazio-merkataritzaren esparru-guztietan parte zuzena hartzen zutela (bereziki, Ipar Europatik ekarritako oihal, artile eta burdinaren merkaturak).

Beste alde batetik, barnealdeko hirietan negozio eta tratuak egin ohi zituzten merkatariek behar handiak zituzten kanpotik inportatutako merkataritza-produktu hauek eskuratzeko zein garraiatzeko. Besteak beste, arrazoi sakon honengatik, merkatarri gasteiztarrak nahitaezkoak zirela erakusteko egoera berezi honetaz baliatu ziren neurrian, inportazio eta esportazioaren merkataritzaren arloan gero eta garrantzi handiagoa izatea lortu zuten. Goiko taulan, Gasteizko merkatarri eta bitarteko famatu batzuen izenak bildu ditugu, besteak beste Julián González de Troconiz, María de Gaviria, Francisco Velázquez de la Cuesta, Martín de Zumárraga, Cristóbal de Paul, Martín de Aramayona, Domingo de Guereña, Ambrosio de Villanueva, Diego de Aberásturi, Simón de Urbina, Martín de Zavala, Martín de Elguea y Retana, Antonio de Tejera Acosta, Juan Nuñez de Vega eta Manuel Blandón (azken hiru bitarteko hauek portugaldarrak ziren).

Laburbilduz, datu hauei esker, poliki-poliki kostaldeko ermandade batzuen eragina baztertuz joan zen heinean, beste merkataritza-produktu batzuekin gertatzen ari zen bezala, bai kostaldeko bai barnealdeko merkatarri batzuk arrain-merkatua menperatzen hasiak zirela ikusi ahal izan dugu. Egia esan, arrain-merkatuaren kasuan, bitarteko gasteiztar hauen agerpena eta esku hartzea funtsezkoa zela agerian dago, beraiek produktu hauek barnealdeko hirietara eramateko beharrezkoak ziren alderdi eta baliabide guztiak antolatzen eta menperatzen zituztelako. Hasiera-hasieran, Gasteizko merkatarri hauen lana bitartekoena izan arren, astiro-astiro merkatu hark eskaintzen zizkien aukerak nahiz etekinak inoiz pentsatu ez zuten baino handiagoak zirela konturatu ziren heinean, merkataritza-egitasmo berri batzuk sortzen hasi ziren, hurrengo atalean ikusi ahal izango dugun bezala.

2. Gasteizko merkatariek eta bitartekoek sorturiko arrantza-konpainiak (1610-1614 bitartean)

Euskal Herrian bertan XVI eta XVII. mendeetan eginiko merkataritza-konpainia gehienak senitarteko-mailakoak izan ziren. Honekin esan nahi dugu, Ingala-

terra eta Holandan sorturiko merkataritza-egitasmo famatuaren aldean (konpainia pribilegiatuak), Espainian zein Euskal Herrian eginiko proiektuak makal samarrak izan zirela. Adibidez, merkataritza-elkarte hauek ikertuz, badakigu XVI eta XVII. mendeetan konpainia hauek sortzeko sinatutako kontratu gehienetan aurki ditzakegun baldintzak ez zirela oso aurreratuak eta, beraz, senitartekoen eragina funtsezko bihurtu zela besteak beste. Aurrerago joan gabe, elkarrekin haiek bazkideak gehienetan senideak izan ohi zirenez, gaur egunean ulertzen dugun bezalako konpainiarik ez zuten osatzen. XVI eta XVII. mendeetako merkatariek sortutako merkataritza-elkarteetan inork ez zekien ezberdintzen zein zen konpainia hauetan eginiko diru-inbertsioa eta bere benetako ondarea. Gehienetan, agiritegiaren aurki ditzakegun dokumentuetan aurkitzen den informazioa sinple samarra da eta ez digu konpainia hauen konposizioa nolakoa zen argitzen. Hala eta guztiz ere, XVII. mendearen hasieran nahiko aproposa den adibide berezi bat aurkitu dugu: Gasteizen bertan eginiko arrantza konpainia askoren sorketa eta garapena bost urtetan zehar, 1610etik 1614ra.

Konpainia hauen historia deskribatu baino lehen, zehaztasun batzuk egin behar ditugulakoan gaude, batik bat Espainiako arrantza-merkatuaren arloan Gasteizko merkatariek zuten eraginari dagokionez. XVII. mendearen lehenengo erdian, Gasteizko merkatariek Europako iparraldetik zein Espainiako barnealdetik eginiko salerosketa gehienak beraien eskuetan geratu zirela esan dezakegu. Egia esan, barnealdeko hiri honetako merkatariek egin ohi zuten ekintza ekonomikoa bitartekoena izan zen, dokumentuetan hurrengo hitzekin azaltzen zaigularik: “comisionista”, “encomendero” edo “factor” (Angulo, 1995b). Antzinako Erregimenean oso ezaguna eta erabilia zen hiztegi batek adierazten digunez enkomenderoa zen, «el que lleva encargos o encomiendas de otros, y se obliga a dar cuenta y razón de lo que se le encomienda y fia»².

2. Taula.

Gasteizko XVII. mendeko lehenengo erdiaren bitartekorik ezagunenak³

Diego de Aberásturi	Martín de Aramayona	Manuel Blandón
Martín de Elguea Retana	María de Gaviria	Domingo de Guereña
Iñigo de Padura	Cristóbal de Paul	Simón de Urbina
Antonio de Tejera Acosta	Julián González Trocóniz	Juan Núñez de Vega
Ambrosio de Villanueva	Martín de Zavala	Pedro de Garibay
Iñigo de Padura	Tomás de Zumalave	Andrés de Arana
Ana de Rejarte	María de Gaviria	Francisco Ruiz Zurbano
Domingo de Arechaga	Pedro de Urbina	Magdalena de Araoz
Juan López de Arcaute	Francisco Velázquez de la Cuesta	Martín de Zumárraga

Nahitaez, XVII. mendeko nazioarteko merkataritzaren arloan sarturik zeudenek argi eta garbi zekiten bere negozioak aurrera eraman eta, azken finean, merkatuak sorturiko oztupoak ekidin ahal izateko merkataritza-sare gogor baten

2. 1633ko dokumentu batean Madrilgo merkataria baten, Juan de Ibarren, eta Gasteizko beste merkataria baten, Juan López de Arcauterren, arteko merkatal harremanak deskribatzen irakur dezakegu «dixeron que entre ellos an ajustado oy dicho dia todas sus quantas que han tenido entre los d(H)istoriko (P)robintziala. Gaspar de Elejalde. 10.610 Protokoloa. 1633/04/18.

3. Iturria: (A)rabako (A)giritegi (H)istoriko (P)robintziala. Protokolo ezberdinak.

barnean sartuta izatea premiazkoa zela. Gasteizko merkatari-taldeari zegokionez, hiri honen kokaera estrategikoa oso eraginkorra izan zen. Beraz, merkatari gasteiztarrek beste hiri eta portu askotako merkatarietara harreman pertsonalak zein komertzialak indartzeari ekin zioten. Denboraren poderioz, egoera honen ondorioz ezagunena zera izan zen: beste hirietako (batik bat, Frantziako eta Gaztelako Koroaren lurretan bizi ziren merkatari atzerritar askorekin) merkataritzaren etxetik harremanak estutu zituztenez astiro-astiro bitarteko hutsak bihurtuz joan zirela. Ildo honi jarraituz, Gasteizko merkatari gehienek kasuetan bi ekintza ekonomiko jorratzen zituztela ikus dezakegu: alde batetik, nahiko ospetsu eta boteretsuak ziren beste merkataritzaren etxe batzuen bitartekoen edo ordezkarien lana betetzen hasi ziren eta, beste alde batetik, aipatutako lana jorratzen ari ziren heinean ohiko merkatari baten eginkizunak ere bete ohi zituzten.

Bereziki, Espainiako artilearen zein Ipar Europatik ekarritako oihalen, arrainaren eta argizariaren merkatuaren barnean Gasteizko merkatarien partaidetza nahikoa ezaguna zen baina, dokumentuetan azalduta agertzen zaigunaren arabera, merkatari hauen lanik adierazgarriena bitartekoarena zen. Azken finean, Gasteizko merkatarien lana ekoizkin batzuk alde batetik bestera garraiatzeko beharrezkoak ziren baliabide guztiak mugitzean eta, aldi berean, sorturiko oztopo guztiak ekiditzean zetzan. Adibidez, Gasteizko kasuan, hiri honetan bertan Espainiako Koroak jarrita zituen aduanetan Europatik bidalitako salgaien zergak ordaintzea lanik inportanteena izan ohi zen (Angulo, 1995c). Gasteizko merkatariak aurrez ordaintzen zituzten salgaien zergak eta geroago, hilabete batzuk pasata, negozio hailetako merkatari nagusiek egindako diru-maileguak itzultzen zizkieten (dokumentuetan negozio honetaz adierazpen garbirik aurkitu ez badugu ere, mesede honen truke merkatari nagusiek zeozer ordainduko zirela suposatuta behar dugu). Alabaina, bitartekoaren negozioak historialari batzuek pentsatzen duten baino arriskutsuagoak ziren, batzuetan, merkatari nagusiei egindako maileguak itzultzen ez zizkietelako edo, gehienetan, Gasteizko merkatariak eginiko fidantzak ordaindu gabe geratzen zirelako.

XVI. mendearen bukaeran zein XVII. mendearen lehenengo erdian zehar, merkatari eta bitarteko gasteiztar hauen bezero nagusiak nazioarteko merkataritzaren arloan sarturik zeuden Madrilgo eta Gaztelako hiri nagusietako merkatari eta tratulari portugaldarrak izan ziren. Gasteizko merkatariak jorratutako ekintza berezi hauetatik aparte, badakigu inportatzaile gisa ere aurki ditzakegula. XVII. mendearen lehenengo zatian, zehazki 1610etik 1614ra, barnealdeko euskal hiri honetako tratulari eta merkatariak ezagunenek kostaldeko ontzijabe eta beste merkatari batzuekin Ternuarantz eta Norvegiarantz joateko prest zeuden itsatsonzi batzuk hornitzeko nahiz prestatzeko aparteko kontratuak egin zituzten. Adibidez, 1611. urtean, Cristóbal de Urrunek Elgoibarko Juan López de Orviarekin konpainia bat antolatzeak akordio adierazgarri bat sinatu zuen; elkarte honen helburua ondokoa zen: bakailao-arrantzarako prest zegoen “Nuestra Señora de la Asunción” itsasontzian 100 dukateko inbertsioa sartzeari⁴. Egia esan, haien artean egindako

4. AAHP. Diego Remírez Tosantos. 4.599 Protokoloa. 1611/5/25. 340r.-342r. fol. Kontratu honen bitartez, badakigu “Nuestra Señora de la Asunción” izeneko ontzia 850 tonakoa zela, maisua Juan de Verástegui zela eta kapitaina Aparicio de Gorostola mutrikuarra. Agiriak azaltzen digun bezala ontzi hau Ternuarantz abiatzen zen «a la pesquería de bacalao y grasas». *Ibidem*.

kontratu mota “a pérdidas y ganancias” zen; horrek esan nahi du, negozio horretan partaide bakoitzak hasiera-hasieratik lortutako irabaziak nahiz galerak bazkide guztien artean banatuko zirela onartzen zuela. Beraz, kontratu honen baldintzek arrantzarako konpainia hauen sorkuntza negozio arriskutsu samarra zelakoan zeudela erakusten digute.

Hiru urte geroago, 1614. urtean, Pedro Martín de Manurga eta Francisco González de Legarda gasteiztarrek ere antzeko hitzarmen berri batzuk egin zituzten Juan López de Orviarekin “Nuestra Señora de la Asunción” deituriko ontzia baikilao-arrantzarako prestatzeko⁵. Manurgak ehun dukat inbertitu ondoren, beste merkatarri gazteitar batzuek ere tratu horretan parte hartu zuten, besteak beste, Francisco González de Legardak, Pedro de Arcayak (250 dukat) eta Domingo de Galarragak (beste 300 dukat inbertituz). Aldi berean, aipatu ditugun tratu horretako partaide batzuek eta guztiz berriak diren beste batzuek (esate baterako: Bartolomé de Galarreta, Juan de Ugarte, Juan Ochoa de Zuazo eta Pedro de Arcayak) Donostiako ontzijabe batzuekin akordio zehatz batzuk egin zituzten, zehazki Manuel de Argacherekin (Norvegiara joateko “Nuestra Señora del Rosario y la Esperanza” izenekoaren ontzijabearekin) eta Sebastián de Burgoarekin (Ternuara joateko prest zegoen “Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje” deiturikoaren ontzijabearekin).

Azken finean, tratu haien guztien aspekturik garrantzitsuena zen, “pérdidas y ganancias” sistema erabiliz, Gasteizko merkatariek eta tratulariek ontzi hauek hornitzeko eta puntu-puntu jartzeko premiazoak ziren diru-kopuruak edo inbertsioak ontzijabeei aurreratzen zizkietela. Horrela, negozio haietan kostaldeko ontzijabeek baliabideak sartzen zituzten bitartean, barnealdeko merkatarien betekizuna diru-inbertsioa zen. Edonola ere, inoiz ez dugu ahaztu behar haiek inbertitu zituzten diru-kopuruak beharrezkoak zirela Ternua edo Norvegiarantz abiatu nahi ziren ontziak horni zitazaten.

Egia esan, bakailaoa eta balearen arrantzarako eginiko konpainia haien agerpenean ezaugarri komun batzuk aurki ditzakegu (hemen aipatuko ditugun ezaugarri nagusiak hobeto ulertzeko eranskinaren bigarren adibidea ikus daiteke), besteak beste:

a) Orokorrean, hitzarmen hauetan parte ohi zuten merkatariek eta tratulariek inbertsio gehienak eskudiruz ordaintzen zituzten⁶;

5. Pedro Martín de Manurga egindako akordioaren arabera, 11 errealeko 100 dukat inbertsioa egin zuen “Nuestra Señora de la Asunción” izeneko ontzia hornitzeko. Egoera honetan, Juan López de Orviaren ontzia baleak harrapatzera Frislanerantz abiatzen zen. *Ibidem*, 2.600 Protokoloa. 1614/5/17. 428r.-431v. fol.

6. Ezaugarri honen garrantzia ulertu ahal izateko, Antzinako Erregimen osoan zehar, eskudirra garraiatzeak izugarriko arazoak sortu ohi zituela gogoraziko dizuet, alde batetik, bidelapurren eraginagatik eta, beste alde batetik, dirua erresumatik ateratzeko debekaturik zegoen salgaia zelako. Adibidez, 1623. urtean, Gasteizko merkatarri batek, Juan de Esquíbel Ilárazak, Donostiara diru-kopuru handi bat (40.000 erreale) bidali nahi zuenez Gasteizko eta Donostiako Alkate Nagusiei baimen berezi bat eskatu behar izan zien. Horrela, aigiriak dioenez: «En la noble y leal villa de san ssevastian a veynte dias del des de Junio de mill y seyscientos y veinte y tres años ante su merced de martin de echavez alcalde ordinario de la dicha Villa y en pressencia de mi Juan de beogran escrivano de su magestad e del numero della y testigos parecio presente cristoval de çubicueta arriero residente en esta villa y dixo que juan de esquibel ylaraza vecino de la ciudad de Vitoria, le havia entregado en ella quarenta mill reales en moneda de plata para traer a esta villa y en ella entregarlos a Miguel de echo

b) Konpainia hauetako bazkideek bai tratu hauek ekarritako irabaziak bai galerak bidaia hauek jasaten zituzten arriskuak gainditu ahal izateko ohiko “a pérdida y ganancia” sistema onartzen eta erabiltzen zuten⁷;

c) Merkataritza-egitasmo hauetan eginiko diru-inbertsioak ontziteria hornitu eta prestatzeko erabiltzen ziren.

d) Kontratu haietan zehazki azaltzen ziren bidaia hauen bidez ekarritako produktuak non edo zein portutan deskargatu beharko zituzten (normalean, XVII. mendearen lehenengo zatian aurki ditzakegun portuak hauexek ziren: Kastro, Donostia, Bilbo edo Pasaia). Hainbat arrazoi direla medio, nao hauek agiritan aipaturiko portuetan atrakutzen ez bazuten merkatariek eginiko inbertsioaren dirutza berreskuratzeko eskubidea zuten eta, gainera, ontziteriaren kapitainak, irabazi gisa, ehuneko 27,5 ordaindu behar ziren.

e) Konpainia hauek osatzeko kontratuek kapitainei ere aukera berezi bat ematen zieten, tratulariek sortutako diru-kopuru osoa eta ehuneko 27,5 itzuli ondoren, ekarritako sabela bereganatzen zutelarik.

Ildo honi jarraituz, 1610etik 1614era, Donibane Garaziko Sabat de Iturbide ontzijabeak Donostian bertan bizi zen ordezkari bat, Joanes de Bortuete, Euskal Herri osoan zehar inbertitzaileen bila bidali zuen. Antza denez, Iturbide kapitainak XVII. mendearen hasieran bakailao eta balearen arrantzarako bederlatzi ontziko flota zuen eta, argitu gabe dagoen arrazoi batzuegatik ontziteria hau prestatzeko dirutza falta zitzaionez, Hegoaldeko hiri guztietako edozein merkatariren laguntza beharra zuen. Esate baterako, 1610ko martxoaren 9an bertan, Juan de Amézagak eginiko akordioak dioenez, merkatarí gasteiztar honek hamaika errealeko mila dukat Sabaten proiektuan inbertitu zituen⁸. Arabako Agiritegi Historiko Probintzian aurkitutako konpainia-kontratuan, Amézagaren inbertsioaren neurria azaldu bezain pronto, gasteiztarrek emandako diru-kopuru hau Sabat de Iturbide kapitainaren ontziteria osatzen zuten itsasontzi guztien artean banatu zutela ikus dezakegu.

vecino de la dicha villa que estava presente de los quales dichos quarenta mill reales acia ecivicion ante su merced y azia entrega dellos al diho miguel de hecho el qual aviendolos contado que estavan en reales de a ocho y a quatro se dio por entregado dellos y otorgo recivo en forma de la dicha cantidad al dicho cristobal de Çuvicueta de cuya entrega yo el dicho escrivano doy fee». AAHP. Francisco de Isunza. 2.630 Protokoloa. 1623/06/14. 57r.-57v. fol.

7. Haietako bidai batek gainditu behar zituen arazoak zein arriskuak handiak ziren, bereziki klimatologiak ekarri ohi zituenak eta pirateriak sortutakoak. Adibidez, Cristobal de Urrunek Juan López de Orivarekin eginiko tratuan hurrengo baldintza irakur dezakegu: «la segunda condicione es que si lo que dios no permita y ladicha nao fuere tomada o robada por amigos o enemigos o en qualquier manera se perdiere y despues fuere rrecuperada en qualquier tiempo por el dicho joan lopez de orivar en tal caso pagando y contribuyendo el dicho cristoval de urune en las costas aberias que en esto se hizieren aya de heredar y herede rrata por cantidad sueldo a libra». AAHP. Diego Remírez. 4.599 Protokoloa. 1611/05/27. 340v. fol.

8. Haien artean egindako konpainia-kontratuak dio «que son concertados conbenidos e ygualados de formar y formaron conpania a perdida y ganancia en esta manera que el dicho Joanes de Bortuete toma y reçive del dicho Joan de amezaga mill ducados de a honçe rreales cada un ducado en rreales de contado sobre nueve naos y quillas y casco dellas y artilleria y demas pertrechos della como dicho es a perdida y gançia». Ibidem. 6.101 Protokoloa. 1610/03/9. 257r.-257v. fol.

3. taula
Juan de Amézaga eta Sabat de Iturbideren arteko konpainiaren kontratuan eginiko diru- eta itsasontzi-banaketa (1610. urtean)⁹

ITSASONTZIAK	TONA-KOPURUA	DIRU-INBERTSIOA ¹⁰	MAISUAK
La María	400	150	Sansin Daldaule
La Gracia	500	200	Pierres de Aristegui
La Sabadina	200	120	Juan de Errazu
La Juana	200	100	Domingo de Aristegui
La María	160	75	Joanes Daldaule
La Esperanza	150	100	Martín de Echávarri
La María	150	100	Joanes de Amezueta
La María	150	75	Joanes de Aristegui
La Esteban	100	75	Miguel de Aristegui
KOPURUA	2.010	995	

Goian ikus dezakezuen 3. taulan, Sabat de Iturbide kapitainaren ontziteriaren neurria eta edukiera begi bistan aurkezten zaigu: bederatzi naoz osaturik zegoen (garai hartan kopuru altu samarra zela aipatu beharra daukagu) eta flota honek mugi zezakeen tona kopurua 2.010 ingurukoa zen. Aldi berean, Antzinako Erregimenean nahikoa arrunta izan ohi zenez, itsasontzien izenak emakumeenak ziren (bereziki, santuenak) negozio hauetan sarturik zeuden pertsona gehienek ontziteriaren babesarako Jainkoaren edo santu batzuen laguntza lortu nahi zuten eta (guztiz interesgarria da bederatzi nao hauetatik lauk izen bera izatea). Beste alde batetik, flota honetako itsasontzien tona-kopuruak ezberdin samarrak zirela gogoratzea komenigarria da eta; Iturbideren flotaren kasuan, “La Gracia” deituriko ontzia, 500 tona zeramatzana, ontziteria honetako “nao capitana” izango zela agerian dago.

4. taulako ontziterian nao bakoitzak bere arduraduna ere bazuela argi eta garbi geratzen zaigu, konkretuki, agiri hauetan maisuak izandakoak¹¹. XVI. mendeko zabalkunde handiko nabigazio-eskuliburu batean, Diego García de Palaciorenean, betekizun eta pertsonaia hauei buruzko informazio zuzena atera dezakegu, berak zioenez:

Gizon trebe, zuzena eta negozio-gizona behar du izan, merkatariek ezagutzen dutena eta fama zein iritzi onekoa, eta egiten dituen gauza guztietan, dituen modu on eta kontu garbiengatik, besteen konfidantza merezi duena. Merkaduriak ongi pleitatzen, karga hornitzen eta gauza bakoitza bere lekuan jar dezaten agintzen jakin behar du. Gizon baketsua eta ongi egokitua behar du, eta ontziak, lehorrean zein itsasoan behar dituen gauza guztiak ezagutu eta ulertu behar ditu. Oso garrantzizko da marinela ona izatea ere, eta altura zer den, esperientzia eta zientziak jakitea; honela, leku guztietara hobe heltzeko gauza izango da, egin behar duena egiteko inolako aholkuaren premiarik gabe (Laburu, 1992: 75).

9. Iturria: AAHP. Diego Remírez. 6.101 Protokoloa. 1610/03/09. 257r.-261v. fol.

10. Hamaika errealeko dukatak.

11. Ontzia, armadakoa edo sabel handikoa izanik, kapitain batek agintzen bazuen ere, maisua edo “maestre” ontziko bigarrena izan ohi zen eta gaur egungo lehen ofizial batek dituen funtzioak bete ohi zituen. Hori bai, ontzi zibiletan, arrantzontzietan edo merkataritza-ontzietan maisuak aginte nagusia zuen.

4. taula
Gasteizko merkatarien partaidetza Sabat de Iturbide ontzijabearekin
(1610-1614 urteko garaian)¹²

MERKATARIAK	1610	1611	1612	1613	1614
Juan de la Presa Salazar					x
Francisco González de Legarda	x	x		x	x
Bartolomé de Galarreta		x	x	x	x
Juan B. de Nanclares			x	x	x
Juan de Castillo Landa	x	x		x	x
Juan de Ugarte				x	x
Juan de Presencio			x	x	x
Juan de Aberásturi		x	x	x	x
Antonio de Larrina	x	x			x
Juan Ochoa de Zuazo					x
Martín de Manurga				x	
Pedro de Murguía	x				
Cristóbal de Urrune			x		
Juana de Calleja	x	x	x		
Pedro de Arcaya	x	x	x		
Francisca de Foronda			x		
Sebastián de Vitoriano		x			
Francisco de Eguiluz	x	x			
Antonio de Maturana			x		
Juan de Salinas Garibay		x			
Juan de Amézaga	x	x	x		

Lan honetan ikertzen ari garen adibidearen bitartez, ontziteria honetako maisuak Iturbideren konfidantza handiko gizonak eta senitartekoak zirela esan dezakegu. Bederatzi maisu hauen artean lau Aristegui eta bi Daldaule bazeudela kontuan hartu behar dugu, seguraski lehengusuak edo anaiak zirenak, gainera, abizenak irakurtzen ditugun heinean gehienak euskaldunak (iparraldekoak zein hegoaldekoak) zirela begi bistakoa da. Azken finean, agiriaren informazioek XVI. mendeko eskuliburu famatu horrek maisuez zioena berresten eta sendotzen dute, batik bat maisu hauek konfidantza handiko gizonak izateari dagokionez; 1613. urtean Iturbidek zituen lau nao hornitzeko enkargua (zehazki, “La Margarita”, “La Gracia”, “La Marta” eta “La María” izenekoak) Miguel de Aristeguiari eman zion, hiru urte lehenago bere nao bateko maisua zenari¹³.

1610 eta 1614. urteen artean, Sabat de Iturbide kapitainak hamaika konpainia-kontratu egin eta sinatu zituen (bere kabuz edo beste ordezkari batzuen bitartez) Gasteizko merkatari askorekin. Horregatik, hasiera-hasieratik azaldu behar dugu ez gaudela konpainia handi baten aurrean, ez zela merkataritza-konpainia multzo handi bat besterik. Beste alde batetik, kontratu hauek egiteko erabilitako eredia bera ez bazen, nahiko antzekoa zela esan dezakegu eta hitzarmen guztietan baldintza berdinak aurkitu ditugula. Garai motz honetan, negozio honetan parte hartu

12. Iturria: AAHP. Diego Remírez. 1610 eta 1614 arteko Protokoloak.

13. AAHP. Diego Remírez. 4.170 Protokoloa. 1613/03/08. 153r.-154v. fol. Ikus Angulo, 1996: 221-234.

